




GROAU!





lau hanka
baina miaurik ez
bibote bi
baina marraorik ez
buztan beltza
baina ilerik ez
katua ez banaiz
zer ote naiz ni?

GROAU!



taldearen ibilbidea

HKA teatroa 1990an sortu zen, urte bereko ANTZERTIko (Eusko Jaurlaritzako Arte Dramatiko zerbitzua) azken kurtsoko kideek lanbide honi profesionalki eta elkarrekin eustea erabaki eta gero.

Bide luze honetan, HIKAK, antzerki mota ezberdinak sortu (kale antzerkia, aretokoa, helduentzat, umeentzat, musikala, kafe teatroa) eta zuzendari ezberdinekin lan egin du. Honen arrazoia, besterik gabe, ikasten jarraitzea izan da. Hala ere, badago zerbait bat egiten duena ia guztietan: umorea.

1990: «**eta ohea egin gabe**», sorkuntza kolektiboa, kalekoa. Zuzendaria: Jorge Amich.

1991: «**chaplin tropela**», helduentzako sorkuntza kolektiboa, Charles Chaplinen filmetako zine mutuan oinarrituta. Zuzendaria: Jorge Amich.

1992: «**aguro**», haur antzerkia, barrukoa. Egileak: Garbi Losada, Agurtzane Intxaurrea. Zuzendaria: Garbi Losada.

1993: «**babalibu babaliba!**», haur antzerkia, kalekoa. Egilea eta zuzendaritza: Agurtzane Intxaurrea.

1993: «**ongi etorri, etsai hori!**», kaleko antzerkia helduentzat. Egilea eta zuzendaritza: Agurtzane Intxaurrea.

1995: «**Henry Bengoa inventarium!**» Bernardo Atxagarena. Zuzendaritza: Jorge Amich eta Makarena Pombo.

1997: «**hau komeria**», musika-komedia. Egilea eta zuzendaritza: Agurtzane Intxaurrea.

1998: «**xagukumeak**», haur antzerkia. Egilea eta zuzendaritza: Agurtzane Intxaurrea.

1998: «**arrantza delikatuak**», kafe antzerkia. Egilea: Agurtzane Intxaurrea. Zuzendaria: Mireia Gabilondo. (egun kartelean)

1999: «**euskal off 2050**», helduentzat, barrukoa. Egilea: Agurtzane Intxaurrea. Zuzendaria: Makarena Pombo.

2001: Mende berriaren hasierarekin eta azken lau urteetan euskaraz lan egin ondoren, berriro ere, estatu mailako antzoki sarea jorratzeko asmoz, Elvira Lindoren «**oihanaren legea**» antzezlanaren aurkeztu zuen. Zuzendaria: Jordi Mesalles.

2002: «**ai, ama!**», amatasunari buruzko kronika gordina. Arantxa Iturberen izen bereko liburuan oinarritua, Arantxa Iturbe berak eta Agurtzane Intxaurreak idatzia. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurrea. (egun kartelean)

2003: «**ixa**», Manuel Tejero Benitez, La Navaleko langile-ohiaren historia kontatzen duen komedia gordina. Izan ere, langabezia urteak eman ondoren, egun, parte hartzaileen kopurua handitzeko asmoz, Manuelek edozein gertakizun sozial edo politikotara joanda ateratzen du bizitza. Egileak: Arantxa Iturbe, Agurtzane Intxaurrea. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurrea. (egun kartelean)

2004: «**groau!**» umeentzako antzerki- musikala. Egilea: Yolanda Arrieta. Musika: Jabier Muguruza. Zuzendaria: Agurtzane Intxaurrea. (egun kartelean)




2005eko proiektua: Alessandro Bariccoren «**zeta**».


sariak

2003: MAX saria Euskarazko testurik onenari «**ai, ama!**» lanagatik.

2000: Euskal aktoreen Batasuneko nominazioa antzerkiko antzezlerik onenari «**ai, ama!**» lanagatik: Ainhoa Aierbe.

1999: «**euskal off 2050**» Ikuslegoaren saria Azpeitiako antzerki Topaketak.





IZENBURUA: Groau!

EGILEA: Yolanda Arrieta

ZUZENDARIA: Agurtzane Intxaurreaga



MUSIKA: Jabier Muguruza


GENEROA: Haur-antzerki musikala

IKUSLEAK: 3tik aurrera

IRAUPENA: 65 minutu

HIZKUNTZAK: EUSKARA eta GAZTELANIA (abendurako)

ESTRENALDIA: Irailak 19, Durango





GROAU!

Nor ez da, behin edo behin, haurra izan eta tximinoa dela pentsatu, katua izan eta txotxongilo gisa ikusi bere burua?

Bai, hau katu baten istorioa da. Baina ez da katu arrunta batena. Ez, katu honek ahizpa bat du. Ama ere bai. Amona izan daitekeen izeba bat ere badu, baina katu honek bere etxean beste inork ez duen beste gauza asko ditu. Ile beltz-beltza, indar gutxi, gorputz txikia eta ahots bitxi-bitxi bat: miau egin beharrean karraska egiten du.

Azeria ote da, ba...?

Erbia, agian...?

Katagorria, akaso...?

Txakurra, behar bada...?

GROAU! Ipuin herrikoen egitura borobila jarraituz, musikaz osaturiko bidaia bitxi eta hunkigarria.



Izenburua: «groau!»

Egilea: Yolanda Arrieta

Aktoreak: Belen Cruz, Miren Gojenola, Nikolas Lizeaga

Musika: Jabier Muguruza

Espazio eszenikoa eta jantziak: (Laia) Santos Bregaña eta Anne Ibañez Guridi

Argiztapena: Xabier Lozano, Sergio López

Grafikagintza: Laia

Eszenografia, atrezzo eta jantzien egilea: Kukuma

Grabaketaren arduraduna eta musikaria: Mikel Azpiroz

Argi eta soinu teknikariak: Eragin

Produkzio zuzendaritza: Mikel Laskurain

Produkzio laguntzailea: Jone Unanua

Zuzendaritza: Agurtzane Intxaurreaga

Banaketa: Jone Unanua (665708474) hikateatroa@euskalnet.net



HIKA teatroa s.l. 46 p.k. 20170 Usurbil. Gipuzkoa. tel.:665708474
hikateatroa@euskalnet.net